

TTAKUN TTAN TTAKUN

p. muñoz

– gggggggghhhhhhhh gggghhh gggggggggghhhhhhhh!

Ez zen oso atsegina izan, ez. Baina kasik ez nintzen ohartu. Seko mozkortuta bainengoen. Baina noski, botaka egitea ez da inoiz atsegina... Ezertaz ohartzeko mozkorregi baldin bazaude ere... A ze piura! Komuneko tazatik kanpora –seguru– barrura baino gehiagok pixa egin izango zuten leku hartan, eta ni belauniko, tazari bi eskuekin helduta –itsasgizon zaildu gabea ontziaren barandari legez– eta lerdea zeridala. Komunera iristea lortu nuenean, gaitzerdi! Listua bota eta bota, ez nuen besterik egiten, afaltzen jandako solomoaren eta piper gorrien zatiak komun-zuloan enfokatzen saiatzen nintzen bitartean. Hura atarramentua, hura! Baina, bat-batean, trash-metal-hard-core “melodikoa” –potroak behar dira, gero!– egiten zuen talde haren “notak” iritsi zitzaizkidan belarrira –ordu arte isilik egon balira bezala...– eta hobeto sentitu nintzen. Ongi etorri Lur planetara, esan nion neure buruari. Nire kamiseta preziatuena zenaren mahukarekin muturra garbitu, eta komunetik atera nintzen. Gaztetxea lepo zegoen, eta gaua hasi besterik ez zen egin...

– OBVSFS VKLSÑAMWQOS A CORGSWTAFFGR LOWS
HUEGWVDVODSSS!!!

Leirerekin ikusi nuen pelikula eder hura: Cinema Paradiso. Ez zen pantaila handian ikustea bezala izango, baina handia zen gaztetxeko telebista, nire etxeakoaren aldean, eta bideo-forum haiek ahaztezinak izaten ziren, batez ere alboan Leire neukanetan. Zenbat oroitzapen pelikula haren pasarteekin irabiatuta... Salvatore txikia bizikletan gora eta behera, galtza motzekin eta galtzerdi zuri luze-luze haiekin, pelikulen negatiboak herriz herri eramanez. Nire esku lotsatia Leireren izter beltzaranaren gainean. Salvatore gizajoa bere maitearen leiho azpian zain, gau, egun, uda edo euri. Leireren irribarrea gaztetxeko iluntasun argiegian. Bat-batean hasitako euri-jasaren hots lehorra leihoetan, telebistakoarekin nahasiz, telebistakoarekin elkartuz, gu ere bustiz, Salvatore herabetia bezainbeste. Pantailako irudi-aldaketek Leireren aurpegian islatuta egiten zituzten itzalak, egiten zituzten kilimak...

– VAMFGHFDOSSWW A ENTGRADSF, Y OVVSS VAMGGFDOSWV A
CODGRTAWQR LOWDFS HUEGDFOSWD!!!!

Ttakun ttan ttakun. Ttakun ttan ttakun. Ttan ttan ttakun ttakun. Ttakun ttan ttakun. Ez zen zaila ondo egitea. Ez zen erraza zaila egitea. Sinplea bazen, ondo zihoan. Azkartzen joanez gero..., beste kontu bat zen. Txalapartaren misterioak, 2 orduko 15 saiotan jorratuak. Gure ametserako txartela, 30 orduko lanaren ordainean. Hura bai mauka!

Europara joan nahi baikenuen udan, eta dirurik ez. Negu osoa igaro genuen dirua nondik atera asmatu nahian. Errazena, bidaia egiten genuen bitartean, noizean behin estatuarena egiten jartzea omen zen, edozein txokotan ikus zitezkeen haiek bezala, Askatasunaren Estatuarena egiten bat, cowboy-arena jantzita bestea, erromatar estatua klasikoren bat imitatuz hura... Ez omen zen ezer ikasi behar. Arropa egokia aukeratzea eta zuriz pintatzea omen zen guztia. Edonork daki geldirik egoten!, esaten zidan Mikel lagunak. Baina nik ez. Nik ezin dut geldirik egon. Eta estatuarena egiten jartzea, ni bezalako ipurterre batentzat... Ezingo nuke... Eta hala frogatu ahal izan genuen ostiral hartan.

Hainbat tabernatan, baita gaztetxean bertan ere, egin genuen ahalegintxoak. Hor jartzen ginen Mikel eta biok, zuritza eskuan, elkarri begira, geldi-geldi, ea zenbat iraungo. Tabernariak ere gure kontura egin zuten nahiko barre. Minutu pare bat irauten genuen gehienez, gu ere barrez hasten ginen arte...

Gaztetxean, txalapartaren ikastaroarena atera zen orduan, eta forma hartu zuen gure ideiak azkenean. Bizikletaren zakutoetan kabitze moduko mini-txalaparta bat erosiko genuen, eta eman pedalei nazkatu arte! Makina bat titiritero merke egina zuen mundu-bira ere, hain musika-tresna orijinalik gabe...

– OFDWS VABFGMGFOS A MGWATAGFVMR!!!!

Jendartean sartu nintzen balantzaka, oraindik ahoa lehor, oraindik zapore garratz hori eztarrian. Mikel inguratu zitzaidan, “zer, bota al dituk denak?!” oihukatu zidan belarrira, trash-metal-hard-core “melodiko” hari gain hartu nahian. Buruaz esan nion baietz, hitz egiteko indarrik gabe. “Aterako diat zerbeza bat, egon hadi hemen!” bota zidan gero, eta perla hau erantsi zuen batere lotsarik gabe: “mozkorra gainditzeko mozkortzea duk onena!”. Kabroi alaena! Zerbezarekin bueltan etorri zenean, ez zidan bada, gainera, esandakoa justifikatu nahi izan, gihar-minak kentzeko kirola egitea ona den bezala, mozkorra gainditzeko mozkortzea dela onena ziurtatuz behin eta berriz... Putasemea behar du gero gizonak! Baina nengoen moduan, ni konbentzitzeko ez zuen arrazonamendu konplexuegirik behar eta...

– NDFO OGVS VJGA A REVBCOMNOCEWDCFR NI DGVUESTRFDA
KPUJHTA MADFGRE!!!

Eta Salvatorek bizikletan gora eta behera jarraitzen zuen bitartean, nire eskuak ere pixkanaka gora egin zuen Leireren izterrean, denboran tentuz banatuak izan ziren mugimendu hutsal baina estrategikoen bitartez. Leirek ez zuen begirik kentzen pelikulatik. Are gehiago, nire eskuak egin zuen bidez ohartu ere ez zela egin esango nukeen, hain zegoen lotua pelikularen harira... Ni, berriz, galtzetan kabitu ezinik nengoen, eta aurrera eta atzera mugitu behar izan nuen, nire *anaia txikia* galtzetan ondo kokatu ahal izateko, egurrezko aulki haiek ezin deserosoagoak ziren aitzakian...

– SLKJE OLSFKJFS HLSFA ACLKABAWBDO EDL TISLKDFJEMPBDO!!!

Txalapartan denbora bat du bikotekide bakoitzak. Orain zuk, orain nik, orain zuk, orain nik. Batek –ttakunak– erritmoa jartzen du pieza osoan zehar. Bera da piezaren oreka eta ordena mantentzeko ardura duena. Beste bikotekideak –herrenak–, aldiz, erritmo hori hausteko saioak egingo ditu, orain kolpe bat emanez, gero bi, eta hurrengoan agian bat ere ez (bere txanda errespetatuz, noski!). Mikel eta biok nahiko ondo moldatzen ginen. Ni nintzen ttakuna normalean, eta herrenarena egiten iaioa zen Mikel. Bikain itxaroten zuen bere txanda, nik ezarritako “oreka” hausten saiatzeko. Irakaslearen arabera, lan handiagoa egin beharra omen zegoen elkar ezagutzen ez zuten bi pertsonen osatutako bikote bati irakasten; zioenez, nabari omen zen gu lagun onak ginela.

– VANHMOCXZS A ENMPBTRDGAR, CABDWROMNECS!!!

Izugarrizko legatza harrapatu nuen. Gaueko bigarrena, denbora gutxian. Ez zen zailegia izan, aurrekoa oraindik guztiz pasa gabe baineukan. Emakumeen bigarren orgasmoa bezala, alegia. Lehenengoaren ondoren...

Jende-oldeak, ustekabeak, lehen ilaretara eraman gintuen, eta eszenatokitik hain hurbil izanda, igotzea besterik ez zitzaidan bururatu... Kalamidadea ni....

“Musikariak” ohartu ere ez ziren egin, segundo gutxiren kontua izan baitzen. Besoak altxa, publikoaren kemen-oihuak jaso, eta, bitan pentsatu gabe, “murgil” egin nuen jendartera.

Zorte txarra izan nuen, hainbeste jenderen artean, lurrean bukatu bainuen. Begiak ireki nituenean, gaztetxe kanpoko belardian etzanda, buru bat, aurpegi bat begiztatu ahal izan nuen, zeru izartsua zuela fondoko: Leire zen. Horrela ezagutu nuen, eta ez da harritzekoa berarekin maitemindu izana, printzesa bat iruditu baitzitzaidan une hartan. Printzea esna zedin musu ematera etorritako printzesa. Harritzekoa dena,

kontrakoa da. Leire nirekin maitemindu izana alegia, neukan –eta gau osoan zehar eman nuen– itxura penagarriarekin... Baina hala izan zen, sinesgaitza dirudien arren. Udaberriko kontuak edo... Auskalo!

Harreman zoragarri horren harira, ordea, beste bat moteldu zen: Mikelena eta biona. Normala den bezala, Leirerekin joan nahi nuen oportetara, eta, ondorioz, albo batera utzi behar izan genuen Europako bidaia. Min egin zion horrek Mikeli, nik uste. Niri ere pena eman zidan, baina zer egingo zaio, bada...

Kataluniako kostaldera egin genuen bidaia Leirek eta biok, kanpina hartuta. Zoragarria izan zen, eta azkenean bere izter beltzaranean gailurreraino iristen ere utzi zidan...

– ODSFS VADFGMNOS A ABVWRRANPKCAR LJFAS ENBDTRAMÑAS, HIJOS DE PUTA!!!!

Hijos de puta entzun dut urruti antzean, eta nire pentsamenduetatik atera nau oihu horrek bortizki, aizkorakada lehor bat bailitzan. Eta entzun, baina aditu ez dudan esaldia prozesatu du nire buruak orduan: OS VAMOS A ARRANCAR LAS ENTRAÑAS, HIJOS DE PUTA!!!!

Atearen bestaldeko oihuak dira. Fuck the police!, nire lagun holandarrak esango lukeen moduan. Atearen alde honetan gauden zazpiok elkarri begiratu diogu. Izua ikusi dut Mikelen eta Leireren aurpegietan, baita besteenetan ere. Gaztetxeak, jada, abandonatutako eliza bat dirudi. Momentu batetik bestera sartuko dira, eta akabo dena. Ez dauka atzera bueltarik... Mikelek Leire besarkatu du, lehen nik egiten nuen moduan, ttakun ttakun, eta musu sentikor bat eman diote elkarri. Bikote polita egiten dutela pentsatu dut, justu atea bota duten une berean.

Bertol Arrieta

Donostian, 2005eko abuztuaren 5ean.